

## Gizartea &gt; Ijitoen Eguna

1549

■ **Nafarroako ijitoen aurkako legea indarrean jarri zuten urtea.** Duela best mende iritsi ziren ijitoak Nafarroara. 1549. urteko lege testu batean aipatzen da ijitoak aurkituz gero zigortu eta kanporatu egin dituztela. Ijitoen egoerak okerrera egin zuen XVII. mendean.

**Erromintxela, Euskal Herriko ijitoen hizkera**

Ez da hizkuntza, ezta dialektoa ere: pagodolektoa da, euskara eta erromantxera hizkuntzak nahasiz sortutako hizkera. Ijito ez direnek ez ulertzeko moduko hizkera sortu zuten ijito euskaldunek. Egun, Lapurdiko kostaldean, Zuberoako mendi inguruetan, Nafarroan, Gipuzkoan eta Bizkaian bizirik dirauen hizkera da

erromintxela. Hala ere, Nafarroako ijitoen elkarteek ez dute ezagutzen Nafarroan erromintxela hitz egiten duen ijitorik. Gutxi aztertutako hizkera izan da. Azkenean ikerketa Josune Muñozek egin zuen, 1990eko hamarkadan, eta, horren arabera, 500 ijitok hitz egiten zuten erromintxela Euskal Herrian. Egun, seguruenik gutxiago izanen dira, hitzun gehienek 80 urte inguru zituztelako eta belau-

diz belaualdi galdu delako. Erromintxelak morfologia eta gramatika euskararenak ditu. Lexikoa, berriz, erromantxelarena da. Hauek dira esaldi batzuk: «*Masak eta barkitxuak panguan daoz*» (ardiak eta arkumeak larreen daude); «*Xava, goli keau zak, mol buterrago ajinen duk*» (mutila, kanta ezak, ardo gehiago izanen duk); «*Txipa nola duzu?*» (nola duzu izena?).

Bihar Nafarroako ijitoen komunitateak haien eguna ospatuko du. Hilabete osoa daramate haien kultura ezagutarazten eta estereotipoak hausten. Ijito eta ijito ez direnen arteko «lankidetzaz» bultzatu nahi dute ijitoen elkarteek.

# Bizikidetzaz xede duen herria

Kattalin Barber Iruñea

**E**z dirudizu ijitoa», esan dio tabernariak Ricardo Hernandezi. Nafarroako Ijitoen Gaz Kalo Elkartearen Federazioko koordinatzailea da Hernandez. Ijitoa. Antza, ez du bat egiten gizartean gailentzen den ijitoaren irudiarekin, estereotipoak hausten ditu. Baina ijitoa da: «Badirudi ijitoaren irudiarekin bat egiten ez badut ez nautela ijitotzat hartzen; baina ijitoa naiz, eta nafarra». Estereotipoek eta aurreiritziez harago jotzeko beharra nabarmendu du Hernandezek, horrelako egoerak saihesteko. Baina zer da ijitoa izatea? Argi du berak: «Guztiaren gainetik, sentimendua da ijitoa izatea, talde baten parte sentitzea, eta balio jakin batzuk izatea».

Apirila hilabete berezia da ijitoentzat. Hilaren 8an, Ijito Herriaren Nazioarteko Eguna ospatu zuten; apirilaren 14an, Sabicas Nafarroako gitarra jotzaile ijitoaren heriotzaren urteurrena izan zen, eta bihar, Nafarroako Ijito Komunitatearen Eguna ospatuko dute. Ijito herriaren kultura ezagutzera emateko ekitaldi ugari egin dituzte Nafarroan. «Herriarrek gure kultura ezagutzera eta harremanak sortzea da hilabete honen helburua», dio Hernandezek.

Nafarroako ijitoei buruzko lehenengo agiriak dionez, 1435. ur-

teko apirilaren 27an Nafarroako Blanca erreginak harrera egin zien ijitoei Erriberrin. Ijitoei buruzko Nafarroako lehen aipamena da, eta efemeridea gogoratuko dute bihar. Jakina da mendeak daramatzatela ijitoek Nafarroan, baina, hala ere, haien inguruan ustetxarrak baino ez dira zabaldurteetan. Horren atzean, ordea, kultura bat, komunitate bat eta errealitate oso bat ezkatzen dira. Nafarroan, 7.000 ijito inguru bizi dira. «Oso herri heterogeneoa gara, aniztasun handikoa, eta hori jendeak ez daki», adierazi du Hernandezek. Aurreiritziak eta estereotipoak eguneroko kontua dira haientzat.

Diskriminazioz beteriko historia bizi izan dute ijitoek. Espainiako frankismoa bukatu arte haien aurkako legeak indarrean zeuden, eta ez dute inolako eskubiderik izan orain dela gutxi arte. Hala ere, jazarpenak oraindik badirela jakinarazi du Hernandezek: «Egun, legeak babesten gaitu, baina errealitatean ez dira gauzak hainbeste aldatu; gure aurkako jarrerak aurrera dirau».

Gizartean dagoen irudia da: gaizkileak eta lapurrak dira, ez dute lanik egiten, eta ez dira gizarteratzen. Hernandezek ez ditu ukatzen ezaugarri horiek guztiak, ijito batzuen errealitatea delako, baina ez guztiena. «Bakarrik gure alde txarra eta negatiboa azalazten da; baina, horrez



Nafarroako Ijitoen Eguna ospatzeko bazkaria egingo dute gaur Iruñeko zezen plazan. MONIKA DEL VALLE / ARGAZKI PRESS

gain, ijito onak eta eskuzabalk daude, gizarte guztietan bezala». Emakumeak baztertuta eta zapatuta dauzkatela esan izan da maiz, eta kultura erabat matxista dela. Onartzen du: «Bai, gure kultura matxista da, ez dago zalantzarik. Baina gizartea bezala, ez gehiago, ez gutxiago». Haren iritziko, gainera, ijitoen artean emakumearen irudia garrantzi handikoa da. Kulturaren balioak transmititzen ditu, eta familia osoa babesten du. Betidanik kale-irten dena emakumea izan dela dio Hernandezek, «ekintzazalea» delako.

«Ezjakintasuna». Ijitoen inguruan hori dagoela uste du Ines Garcia Nafarroako Ijitoen Idazkaritza Fundazioko arduradunak, eta, aurre egiteko, tresnarik eragin korrena ezagutza dela uste du. Izan ere, aurreiritziek eta estereotipoek ezjakintasunean eta urteetako bazterketan dute sorrera. Ezezaguna ezagun bilakatzeko,

ijitoen historiaren, kulturaren eta hizkuntzaren berri zabaltzeko antolatuta dituzte hil honetan ekitaldiak. Elkarbizitza da gakoa: «Ijitoek beldurra dute, orain arte jaso duten tratua oso txarra izan

“

Bai, gure kultura matxista da, gizartea bezala; ez gehiago, ez gutxiago»

**RICARDO HERNANDEZ**  
Ijitoen Gaz Kalo Federazioko koordinatzailea

«Ijitoek beldurra dute, jaso duten tratua oso txarra izan delako; bere baitan itxi dira»

**INES GARCIA**  
Ijitoen Idazkaritza Fundazioko arduraduna

delako, eta bere baitan itxi dira». Ere mu berean bizi diren kulturek bizikidetzaz eta errespetua behar dute bizirik irauteko.

Nola aldatu, beraz, errealitatea? Gakoa elkarbizitzan dagoela uste dute Garciak eta Hernandezek. Ijitoek eta ijito ez direnek pausoak eman behar dituzte elkarrekin. «Ez da baten kontua, ezta bestearena ere; bien arteko lankidetzaz baizik», uste du Garciak. Oraindik ere ijitoen eta ijito ez direnen arteko harremanak ez daude normalizatuta. Berriki, Nafarroako gazteriaren inguruko txosten batek datu kezagarriak azalazten ditu: Nafarroako gazteek ez dute auzokide ijitorik izan nahi.

Hernandezek, adibidez, hutsune handia ikusten du hezkuntzan. «Eskoletako liburuetan ez gaituzte aipatzen; ikusezina gara, eta mendeak daramatzagu hemen». Horrez gain, beste errealitate bat ezagutzera eman du Hernandezek: ijitoak direnak baina ez dutenak esan nahi. «Ez dute nahi ijitotzat hartzea, izan ditzaizketen ondorioengatik. Lagunak